



MD1213	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	01-07-2011

Lan plangintzaren balorazioa

taldea: **HPB**

ikasturtea: **2018/19**

1. Sarrera

Ikasturte honetan zenbait aholkulari eta lankide berri izan ditugu taldean; egoera horren arrazoi izan dira zenbait bakante, errelebo kontratu, zein lanaldiaren murrizketa; guztira taldearen %38a gutxi gora behera. Aldaketa ugari, baina taldean oso ondo integratu direnak; lerro hauen bidez beraien ahalegina errekonozitu eta eskertzeko aprobetxatu nahi dugu.

Urtero aipatzen dugun bezala, balorazio psikopedagogikoen eskaerei erantzutea da gure lanaren zamarik handiena, ikastetxeetatik jasotzen ditugun eskaerei iritsi ezinean ibili gara eta, beti bezala, ikasturte berrirako zerrenda egina dago ikastetxeetan.

Aurten, 826 balorazio egin ditugu guztira. Zenbakiak adierazten du guztia!

Berritzeguneko kolaboratzaileek (TEA, Gorren koordinatzailea, TO eta Gizarte langileak) duten ikasle kopurua ere ikasturtez ika sturte handitzen doa, gure gizartearen konplexutasunaren isla agerian utziz.

Aurten ere etapako aholkulariekin koordinazio eta lankidetzan hasitako bidea jorratuz jarraitu dugu, erantzun pedagogikoa gero eta inklusiboagoa bilatu eta eman nahian ikasleria osoari.

Berdin jarraitu dugu beste zenbait esparruetan ere, zerbait aipatzeagatik USMIJ, CAHDET, EVO, EVAT, Foru Aldundia, Udaletxea, gabinetek, ...

Departamentutik antolatu diren 2 Planen aurkezpen ekitaldietan parte-hartu genuen. Horrez gain, ikasturte osoan ez dugu inolako formakuntzarik jaso Departamentuaren aldetik. Guk gaurkotuta egoteko beharra dugu nolabaiteko formatzaileak, berriztatzaileak, izatea eskatzen zaigulako, baina gure bizkar gainean geratzen da soilik prestakuntza hori. Aholkulari berriak ere ikasturte bukaeran jaso dute beraien oinarriko prestakuntza bere lana zertan datzan ezagutzera emateko (eta pozik, azken urteetan ez baita egon ere!!!). Ikasturtean zehar egokitzen jo ditugun zenbait formakuntza ekitalditan (ikastaroak, kongresuak, Jardunaldiak) parte hartu dugu maila pertsonalean, gehienak asteburuetan.

Gaur egun bizi dugun lan zamak, gero eta zailagoa egiten du talde bezala beharrezkoak izango genituzkeen hausnarketa, erreflexio, ... tarteak izatea gure lanaren inguruan. Lanaren zutabe hori hankamotz geratzen zaigu. Urtero bezala, azpimarratu nahi dugu bi HPBko aholkulari gehiago beharrezkoak direla gure lana aurrera eramateko. Momentuz Hezkuntza Sailak uko egin dio gure eskaera horri.

Beste eskaera zahar bat da ere HPBko aholkulari batzuk pairatzen ari diren diskriminazio ekonomikoa: **Nahiz eta lan berdina egin gutxiago kobratzen ari dira**. Noiz konponduko da egoera diskriminatzaile hau??

MD1213	
Rev	<i>Fecha aprobación y entrada vigor</i>
0	01-07-2011

2. Ikastetxeetan garatu diren esku-hartze nagusiak [esanguratsuak] Sailaren lehentasunezko jarduera-eremuen arabera

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
<p>Ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Balorazio psikopedagogikoak -Familiekin bilerak -HPBko baliabideen antolaketari buruzko aholkularitza -Baliabideen erabilera egokia -Ikuspuntu inklusibotik egindako aholkularitza -ALE/EHE koordinazio bilerak -HLEekin koordinazio bilerak eta antolatutako formakuntza -Ikastetxeko aholkulari eta orientatzaileekin koordinazio bilera. 	<p><i>Balorazio psikopedagogikoarekin lotutako kalitate prozedura duela 15 urte adostu zen. Gaur egungo balorazio kopurua ikusita, hau jasan ezina da. Gai honi aurten buelta bat ematekotan ginen, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu honen gainean hausnarketa sakon bat egitea. Ez dugu lortu gauza handirik egiterik, zenbait erabaki ez daude gure baitan soilik; datorren ikasturterako geratu zaigu gaia taldean eztabaidatua izan dadin.</i></p> <p>Proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gure lana hartzen ari den dimentsioa ikusirik, adostuta ditugun pausu batzuk beste modu batean bideratu beharra ikusten dugu <p><i>HPBko ikasleen jarraipena egitea ezinezkoa bihurtu da.</i></p> <p>Proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Aholkulari bat gehiago izatea Berritzegune bakoitzean. ✓ Jarraipena HPBkoei soilik egitea??? ✓ Itunpeko ikastetxeekin modu malguagoan jokatu beraiek badituztelako psikologoak plantiletan <p>Datorren ikasturterako hobetze proposamenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Fisioen gaia: Delegaritza eta mediku errehabilitatzaileekin koordinaketa ➤ G.E. eta ZIGetako matrikula prozesuak nola hobetu eta koordinatu ➤ W67ko prozedurak erraztea bilatu ➤ Formakuntza: Gela Egonkorretako PTak (isabel Galenderekin); GGMMGG: sormena (Pako Sanchez?)



Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	01-07-2011

Etapako aholkulariekin :

- Ikasturteko gutxieneko 2 bilera orokorrak burutzen saiatu gara, gehienetan burutu direlarik.
- Eman diren zenbait egoerei edo gaiei erantzuteko informazioa trukaturaz bideratzen saiatu gara.
- Aurtengo ikasturtean egindako hainbat mintegi, eta lan taldeak, etapako aholkulariekin batera egin ditugu.

Kanpoko agenteekin koordinatzea:

- USMIJ eta Helduen Osasun Mentala,
- Pediatria, Neuropediatria,...
- CRIkoekin bilerak.
- UTE
- Gizarte Zerbitzuak
- Gabinete pribatuak
- Arreta Goiztiarra: EVAT/EIAT

Zenbait batzordeetan parte hartzea: *Menores en situación de desprotección con problemas de salud mental* (BG, Gasteizko Udala, Foru Aldundia eta Osakidetza); *Menores con discapacidad y trastorno mental* (BG, Gasteizko Udala, Foru Aldundia eta Osakidetza)

-Udaletxeko Hezkuntza saileko teknikariek bilera Laguntza Psikopedagogikoen kudeaketarako ideiak partekatzeke

Arabako Foru Aldundiko teknikariek ZIGetako ikasleen praktikak Okupazio Zentruetan kudeatzeko

Beste batzuk:

- Fisioterapeutekin koordinazio bilerak BGn
- HLEn azken koordinazio orokorra Berritzeguneka

Ikastetxe batzuetan tramite hutsa dira, oso azaleko zerbait bezala geratzen dira, batez ere kurtso bukaerakoa. Agendak bateratzea kostatzen zaiguna kontuan hartuta,

Proposamena:

- ✓ *Modu malguan jokatzeko aukera izatea 2 aholkularien iritzia bateratuz*
- ✓ *Beharrezkoa edo zentzua duten ikastetxeetako soilik egitea*
- ✓ *Itunpeko ikastetxeekin modu malguan jokatu???*



Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	01-07-2011

<p>-HLEn formakuntza ikastaroa Berritzeguneka (ekaina)</p> <p>- Ikuskaritzarekin izandako bilerak egoera puntualei erantzuteko</p> <p>Ordezkaritzak zein Hezkuntza Sailak agindutako lanak betetzea:</p> <p>-Koordinazio bilerak: Lurraldekoak eta lurralde-arteakoak</p> <p>-Eskolatze proposamenak eta hurrengo ikasturteko aurreikuspenen planifikazioa</p> <p>-Zerbitzu Eginkizun deialdien inguruko zenbait balorazio batzordetan parte-hartzea: 5 aholkulari eta gorren eta TEA taldeetako bi koordinatzaileak</p> <p>- Ordezkaritzatik heltzen zaizkigun gurasoek eginiko txosten eskaerak: bere esku izateko, dependentsiarako, auzitegirako, beste profesional batzuei emateko, ...</p>	<p><i>W67 aplikazioak gero eta denbora gehiago eskatzen digu alde burokratikoetik , alde teknikoa oztopatuz.</i></p> <p>Proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Sailak prozedura berrikustea, ikasleak noiz eta nork aplikaziora sartzeko bideak irekiz. HPBko Aholkulariengan HPBko ikasleen ardura soilik utziz.</i> <p><i>Urtez urte gurasoen txosten eskaera-maila gorantz doa, zenbait eskaera zentzu gabeak direlarik gure iritziz. Gabinet pribatu bat izango bagina bezala ikusten gaituzte. Idatziz izan nahi dute egin duguna eta eskola mailan antolatu den eskola erantzuna; hori lortze aldera, Delegaritzara jotzen dute txosten eske eta handik ez dago inolako filtrorik eskaera horiek jasotzean..</i></p> <p>Proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Delegaritzako teknikariek irizpideak adostea gai honi buruz.</i>
---	---

3. Prestakuntza ekintzak: ikastaro eta mintegiak

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
<p>Planifikaturiko mintegi eta ikastaro guztiak balorazio onarekin burutu dira baita antolaturiko formakuntza saioak ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Mintegiak: ALE orokor, TEA eta Gorren taldeetakoak; ZIG; Orientatzaileena; Aholkulariarena; Aniztasunari erantzuteko taldearena; 	<p><i>Aurten ez dugu ohiko formakuntza saiorik jaso. Gainera, aholkulari bakoitzak, HPBko izaera orokor bat izateaz gain, badugu lan Programa bat (guztira 4), erabat "utzita" daudelarik. Kontutan izaten dira soilik formakuntza ekintzen ardurak edo lan zehatzak banantzeko orduan.</i></p>



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD1213

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	01-07-2011

- ✓ Ikastaroak: Gorren taldetik 2 ikastaro;
- ✓ HLEn formakuntzarako ikastaro bat BG bakoitzean
- ✓ Arreta Goiztiarreko arduradunek antolatua: "Haur Hezkuntzako garapenaren ohiko zaintza"

Proposamena:

- ✓ *BG Nagusitik izaten genituen koordinazio saioak, baita programaka ere, berreskuratzea*
- ✓ *Gure formakuntza espezifikoa zein orokorra berreskuratzea*